


KULTURA

LITERATURA. Asier Serrano, *Euri gorriaren azpian* eleberria eskuetan, Donostian. ANDONI CANELLADA / FOKU

Barne bidaiaria baten bidaiaria «gordina», Serranoren estiloan

→ 'Euri gorriaren azpian' eleberria kaleratu du idazleak Erein argitaletxearekin.

Garazi Karrera Lopetegui

DONOSTIA— Galderak egin bai, baina ez erantzun. «Kontua ez da zergatik idazten dugun, baizik eta zertarako. Eta ez zertarako idatzi, baizik eta zertarako publikatu», adierazi zuen Asier Serranok (Eibar, Gipuzkoa, 1975), atzo Donostian egin zuen liburu aurkezpenean *Euri gorriaren azpian* eleberria kaleratu du Serranok Erein argitaletxearekin. Liburua duela bost urte idazten hasi zen arren, idazlearen aburuz, une hau da argitaratzeko aproposena: «Kaxoian gordea egon da denbora luzez, baina azken urteetako gizartearen ez-aldaketek zentzua eman diote orain eleberrari». Nolanahi ere, idazten hasiera zerk bultzatu zuen jakin nahi izan du egileak. Hortaz, liburu horrek orduko behar bat «betetzen» du.

Idazleak, besteak beste, sormenaren auzia planteatzen du, ea zergatik heldu behar dioten sortzaileek sormen horri, «eten-gabeko gaupasa intelektual ho-

riei». Kontu horri protagonistaren lanbidearen aitzakian heltzen dio: idazlea baita, hain zuzen. Protagonista bere jaioterrira itzuli da, 25 urteren ondoren. Ordutik, zazpi urteko diktadura eta hemezortzi urteko ustezko demokrazia bizi izan dute bertan, hurrenez hurren. Protagonista hirira itzuli da, bertatik ihes egin baino lehen ezagutu zuen gizonaren nahia betetzera; izan ere, hilzorian dago. «Eleberria irakurritz joan ahala jakingo du irakurleak zer den eginbehar hori, eta nola borobiltzen duen Asier Serranok istorioa», gaineratu du Uxue Razkin Ereineko editoreak.

Sinboloz jositako liburua dela azpimarratu du Serranok, lehen orritik hasita: «Liburuan agertzen dira gizarteak baztertutako pertsonaia batzuk, eta horiek gizarteak inposatutako lege eta arauak aurre egiten dieten, sormenetik». Pertsonaien inguruan, «zirkutik» ateratakoak eta «jolas handia» ematen dutenak direla azaldu du; «eroak, baina aldi berean kalean aurki dai-

tezkeenak». Hezur-haragizko eta izerdizko pertsonaia paperean bere lekua izateak gustatzen zaiola aitortu du idazleak, eta horiek ere eleberrian agertzen direla adierazi. Horrenbestez, idazleak «berreskuratu» egin ditu desertorearen figura, soldaduak, kanoiak, eskopetak, fusilak eta «odol krudela sorrarazten» duten irudi falikoak, besteak beste. «Nire betiko pertsonaia agertzen dira hemen ere, ez baitakit beste modu batean idazten. Esaldiak eta paragrafoak ere ohiko moduan formulatuta daude».

Serranoren literatura «surreal-tatzat» jotzen dela azaldu du idazleak berak, eta ametsetatik zein errealitatetik «abiatzen» dela azaldu: «Nire eginbeharra bizi dugun gizartearen eskura ekartzea da, hausnarketaren bidetik». Era berean, idazleak «oso garbi» du ez duela liburu «itxi» bat egingo. «Niretzat sinbolo batek duen esanahia beste batentzat guztiz ezberdina izan dezake». Eta istorioaren hasiera jarri du adibidetzat: «Bortxaketa batekin hasten da nobela. Eta hor

irakurlearen interakzioa bilatzen dut: zer da bortxaketa bat? Zer da obsesioa? Edo memoriaren bilaketa? Galdera horiek daude liburuan, eta horiek irakurleak bere buruari egin beharrekoak dira».

Idazkera estiloa

Editorearen hitzetan, protagonistak abandonatu zuen sustraletara egindako barne bidaiaria kontatzen du eleberririk. «Emakume protagonistaren barne bidaiaria bat, bidaiaria baten barruan». Serranok azaldu duenez, eleberriko protagonistak bisitatzen duen leku bakoitzean —izan hiriko kalean, auzoan, musean edo katedralean— topatuko du bere «esentzia, inspirazioa eta idazteko nahia». Halaber, istorioa «bortitza, krudela eta lohitsu» dela gaineratu du Razkinek, eta irakurlea «lehen kolpetik» ohartuko dela.

Horrez gain, Serranoren estiloa nabarmendu nahi izan du editoreak: «Istorioren gogortasuna, Serranok lortzen duen poetikotasunari esker, irakurketa hipnotikoa bihurtzen da». Estiloarekin jarraituz, arrisku batez ohartarazi du Razkinek. Izan ere, zenbaitean, poetikotasunari errepartzeari, istorioa kontatzeari «uzten» zaio. Baina, «kasu honetan, ez da hori gertatu, eta oreka hori mantentzen da».

Irakurlearen parte hartzea

Razkinek narratzaile orjajakilearen eta irakurlearen artean sortzen den joko azpimarratu du: «Narratzaileak une jakin batzuetan irakurleari hitz egiten dio, istorioan aurrera egin dezan». Serranok horixe bera berretsi du, hasieran irakurleari galdera bat planteatzen baitio, eta horrekin, jokoaren parte egiten du. «Nire ustean, jolasik ederrena irakurleak berak istorioaren narratzailea nor den asmatu beharko duela da. Horrek thriller ukitu ematen dio nobelari».

Zuzeneko edota zeharkako hausnarketak aurki daitezke eleberrian. Oharkabea izan dela onartu du, baina boterearen inguruan mintzo da Serrano bere lanean: «Oraindik ere galdetzen diot neure buruari zer ote den boterea. Norbere bi- zipenetatik ateratzen da, norbere irrintzitik, eta askotan mutututa daukagu». Orduan jabetu zen zergatik ari zen idazten. Eta «asetuta» geratu da. «Eskertuta» azaldu da idazleak lanarekin, modu batera edo bestera bera ere «itzuli» egin delako. Bestalde, izenburuarekin ere «asmatu» duela sentitzen du: «*Euri gorriaren azpian* izena emanda lanari, nire nahia bete dudala sentitu dut, eta, nolabait, ixten duela zirkulua. Ez diot ezer zor literaturari; bete dut neure buruari egindako promesa astuna». ●



«Kontua ez da zergatik idazten dugun, baizik eta zertarako. Eta ez zertarako idatzi, baizik eta zertarako publikatu»

ASIER SERRANO
Idazlea